

## EBAZPENA

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, zeinaren bidez merezimenduak alegatzeko aurreikusitako epea luzatzen baita, karrerako funtzionario izateko enplegua finkatzeko salbuespenezko hautaketa-prozesuetan. Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko azaroaren 18ko Aginduaren bidez egin zen hautaketa-prozesu horietarako deialdia.

[Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko azaroaren 18ko Aginduaren](#) bidez, enplegua finkatzeko salbuespenezko hautaketa-prozesuetarako deialdia egin zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako kidego eta eskaletan karrerako funtzionario izateko.

2023ko otsailaren 9ko IVAPeko zuzendariaren ebazpen bidez zehaztu zen, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko azaroaren 18ko Aginduaren bidez deitutako karrerako funtzionario izateko enplegua finkatzeko salbuespenezko hautaketa-prozesuetan, merezimenduak alegatzeko epea **2023ko irailaren 14an hasiko zela eta 2023ko urriaren 11n amaituko zela**.

Epe hori ireki ondoren, gorabehera tekniko bat gertatu da, eta, horren ondorioz, ezinezkoa izan da merezimenduak alegatzeko aplikazioaren ohiko funtzionamendua. Behin konponduta, beharrezkoa da amaitu gabeko epeak luzatzea, 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena 32. 4 artikuluan ezarritakoaren arabera

Hori dela eta, EBATZI DUT:

**Lehena.** - **Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko azaroaren 18ko Aginduaren bidez deitutako** karrerako funtzionario izateko enplegua **finkatzeko salbuespenezko hautaketa-prozesuetan, merezimenduak alegatzeko epea luzatzea. Beraz, epe hau, 2023ko irailaren 14an hasi zena, 2023ko urriaren 25ean amaituko da.**

**Bigarrena.** - Hautaketa-prozesu horien oinarriari jarraituz, epe horretan, hautaketa-prozesu horietan parte hartzen dutenek, hala badagokie, betekizunei eta merezimenduei buruzko **agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:**

BETEKIZUNAK ETA MEREZIMENDUAK	ESKATZEN DIREN AGIRIAK
Atzerrian lortutako titulua eta homologazioaren egiaztagiria, bai prozesuan parte hartzeko betekizun legez alegatu bada, bai merezimendu gisa alegatu bada.	Tituluaren eta homologazioa egiaztagiriaren kopia arruntak.





Hizkuntza-eskola ofizialek emandakoak ez diren <b>Hizkuntzetako titulu eta ziurtagiriak</b>	Tituluaren edo ziurtagiriaren kopia arrunta.
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorretik eta haren organismo autonomoetatik kanpo administrazio publikoetan <b>emandako zerbitzuak</b> .	Emandako zerbitzuen egiaztagiriaren kopia arrunta.

**Hirugarrena.**– Era berean, hautaketa-prozesu horien oinarri jarraituz, epe horretan, hautaketa-prozesuetan parte hartzen dutenek, **lanpostuen betekizun espezifikoak betetzen dituztela alegatu beharko dute**, baldin eta betekizun espezifiko horiek atxikituta dauzkaten lanpostuak eskatu nahi badituzte. Betekizun horiek Ebazpen honen **Eranskinean** jasotzen dira.

**Laugarrena.**– Bigarren eta hirugarren artikuluetan ezarritakoa gorabehera, **merezimenduak alegatzeko epearen hasieran, hautaketa-prozesuaren webgunean jasota** egongo dira, izangai bakoitzeko, **administrazio honek erakunde egokietatik jaso dituen eta, beraz, egiaztatutzat jotzen diren merezimenduak.**

Era berean, **merezimenduak alegatzeko epearen hasieran, hautaketa-prozesuaren webgunean jasota** egongo dira, izangai bakoitzeko, **administrazio honek erakunde egokietatik jaso dituen hautaketa-prozesuan parte hartzeko betekizunak eta zenbait lanpostuk dauzkaten betekizun espezifikoak. Horiek, egiaztatutzat emango dira.**

**Izangaiek dagokion laukitxoa markatu beharko dute** adierazteko, hautaketa-prozesurako egiaztatutzat eman diren **merezimenduen eta betekizunen artean, zeintzuk alegatzen dituzten** parte hartzen duten prozesu bakoitzean.

**Bostgarrena.**– **Merezimenduak alegatzeko epean alegatu eta egiaztatu behar den eta,** merzimenduak alegatzeko epearen hasieran, **hautaketa-prozesuaren webgunean jasota ez dagoen edozein betekizun edo merzimendu, administrazio honek jaso eta egiaztatu bezala, izangaiek alegatu eta egiaztatu beharko du,** dagokion dokumentazioa aurkeztuta.

**Seigarrena.**– Hautaketa-prozesu hauen oinarri orokorren 8.3 atalak adierazten duenez, inolako ziurtagiri digitala edukita eskabidea egin zuten izangaiek lortu zuten **aldi baterako erabiltzailea eskabidea kontsultatzeko baino ezin izango da erabili,** eta gainerako izapideetarako beharrezkoa izango da identifikazio elektronikorako onartutako bitartekoetako bat izatea.

Hori dela eta, **identifikazio elektronikorako bitartekorik ez duten pertsona guztiei** gogorarazten zaie **BakQ txartela emateko gaitutako zentroetara jo dezaketela baldin eta** hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidean aurkeztean eman zitzaizen **aldi baterako erabiltzailea baino ez badute. Izan ere, aldi baterako erabiltzaile hori erabilia, identifikazio elektronikorako bitarteko bat lortu ahal izango dute prozesuaren jarraipena egiteko** atal guztietan, merzimenduak alegatzeko eta egiaztatzeko barne. **Horrela ez bada egiten, merzimenduak alegatu eta egiaztatu beharko dira modu presentzian; eta, IVA Peko laguntza tekniko behar bada, alde aurretik zita eskatuta.**



**Zazpigarrena.**– Hautaketa-prozesuaren webgunearen “Hautaketa prozesuen informazio orokorra”ren barruan, **“MEREZIMENDUAK NOLA ALEGATU ETA EGIAZTATU”** atala eskaintzea. Atal horretan, irudien bidez eta zehaztasun osoz, prozesuaren webgunean alegatzeko eta egiaztatzeko prozesua azaltzen da.

**Zortzigarrena.**– **2024ko otsailaren 6an hautaketa-prozesuetako behin-behineko kalifikazioen zerrendak argitaratuko direla** ezartzea, hautaketa-prozesuaren webgunean.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpen honen aurka, ez baitu agortzen administrazio-bidea; betiere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikulua eta hurrengo arabera. Errekurtoa jartzeko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtoa, bestalde, ebazpen hau eman duen organoari jar daskioke, edo Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari. Gora jotzeko errekurtoa aurkezten denetik hiru hilabete pasatzen badira ebazpen espresurik eman gabe, ezetsizat hartu ahal izango da, eta administrazioarekiko auzien bidera jo ahal izango da.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoren datan.

Maite Barruetabeña Zenekorta  
IVAPeko zuzendaria



# ERANSKINA

**MEREZIMENDUAK ALEGATZEKO EPEAN ALEGATU  
EDO/ETA EGIAZTATU BEHAR DIREN KIDEGO ETA  
ESKALEN ARABERAKO BETEKIZUN ESPEZIFIKOAK**



## **FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO TELEKOMUNIKAZIOETAKO ESKALA**

Ez dago betekizun espezifikorik.

## **FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO ITSASONTZIETAKO ESKALA**

- B gidabaimena.  
Administrazio honek jasoko du.

## **FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO KARTOGRAFIAKO ESKALA**

Ez dago betekizun espezifikorik.

## **FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO INDUSTRIAKO ESKALA**

- B gidabaimena.  
Administrazio honek jasoko du.
- Industria-ingeniaritzako lanbide arautuan jarduteko gaikuntza-titulua.  
Administrazio honek jasoko du.

## **FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO MEDIKUNTZAKO ESKALA**

- Laneko medikuntzako espezialistaren titulua.  
Administrazio honek jasoko du.
- 600 orduko prestakuntza laneko arriskuen prebentzioko goi-mailako eginkizunak betetzeko, edo laneko arriskuen prebentzioko goi-mailako teknikari jarduteko gaikuntza-titulua edo prestakuntza-ziurtagiria, hiru espezialitateetan: segurtasuna, higiena eta ergonomia eta psikosoziologia.  
Ziurtagiriaren kopia arrunta erantsita egiaztatuko da.
- B1 mailako ingelesa.
  - Hizkuntza-eskola ofizialek emandako titulu eta ziurtagiriak: administrazio honek jasoko ditu.
  - Beste erakunde batzuek emandako titulu eta ziurtagiriak: egiazttagiriaren kopia arrunta erantsita egiaztatuko da.



- Ziurtagiri negatiboa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 57.1 artikulua arabera.  
Administrazio honek jasoko du.
- Medikuntzako lanbide arautuan jarduteko gaikuntza-titulua.  
Administrazio honek jasoko du.

## **FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO FARMAZIAKO ESKALA**

- B1 mailako ingelesa.
  - Hizkuntza-eskola ofizialek emandako titulu eta ziurtagiriak: administrazio honek jasoko ditu.
  - Beste erakunde batzuek emandako titulu eta ziurtagiriak: egiaztagiriaren kopia arrunta erantsita egiaztatuko da.

## **FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO ALBAITARITZAKO ESKALA**

Ez dago betekizun espezifikorik.

## **FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO INFORMAZIO-SISTEMETAKO ESKALA**

- 3 urteko esperientzia izatea administrazio publikoetan SAP proiektuak kudeatzen.  
Ziurtagiriaren kopia arrunta erantsita egiaztatuko da.

## **FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIOKO ESKALA**

Ez dago betekizun espezifikorik.

## **FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO INGURUMENENKO ESKALA**

- B gidabaimena.  
Administrazio honek jasoko du.
- Ikasketa-eremu hauetako gradu-, ingeniari- edo lizentzia-tituluak: fisika, industria-teknologietako ingeniari, ingeniari elektrikoa, industria-elektronikaren eta -automatikaren ingeniari, ingeniari mekanikoa, industria-kimikaren ingeniari edo ehun-ingeniari.  
Administrazio honek jasoko du.



## **FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO KULTURA-ADMINISTRAZIOKO ESKALA**

Ez dago betekizun espezifikorik.

## **FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO KIROLETAKO ESKALA**

- Prestigioko entitate batek edo unibertsitate batek egiaztatutako graduondokoa, entrenamenduko edo kirol-errendimenduko 450 ordukoa gutxienez.  
Ziurtagiriaren kopia arrunta erantsita egiaztatuko da.

## **FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO NEKAZARITZA- ETA ABELTZAINZAKO ESKALA**

- B gidabaimena.  
Administrazio honek jasoko du.
- B2 mailako ingelesa.
  - Hizkuntza-eskola ofizialek emandako titulu eta ziurtagiriak: administrazio honek jasoko ditu.
  - Beste erakunde batzuek emandako titulu eta ziurtagiriak: egiaztatutako kopia arrunta erantsita egiaztatuko da.
- Nekazaritza Ingeniaritzako lanbide arautuan jarduteko gaikuntza-titulua.  
Administrazio honek jasoko du.

## **FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO ARRETA SOZIOLABORALEKO ESKALA**

- C1 mailako ingelesa, frantsesa edo alemana.
  - Hizkuntza-eskola ofizialek emandako titulu eta ziurtagiriak: administrazio honek jasoko ditu.
  - Beste erakunde batzuek emandako titulu eta ziurtagiriak: egiaztatutako kopia arrunta erantsita egiaztatuko da.
- 5 urteko esperientzia izatea gizarte-zerbitzuen eremuan, Gizarte-zerbitzuen arloko goi-ikuskaritzari buruzko irailaren 14ko 238/2010 Dekretuaren 8. artikularekin bat etorritik.  
Administrazio honek jasoko du.
- Ziurtagiri negatiboa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 57.1 artikularen arabera.  
Administrazio honek jasoko du.



## **FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO LARRIALDIETAKO ETA METEOROLOGIAKO ESKALA**

- B gidabaimena.  
Administrazio honek jasoko du.

## **FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO PRENTSA ETA ARGITALPENENKO ESKALA**

- B1 mailako ingelesa.
  - Hizkuntza-eskola ofizialek emandako titulu eta ziurtagiriak: administrazio honek jasoko ditu.
  - Beste erakunde batzuek emandako titulu eta ziurtagiriak: egiaztagiriaren kopia arrunta erantsita egiaztatuko da.

## **FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOKO ESKALA**

- 600 orduko prestakuntza laneko arriskuen prebentzioko goi-mailako eginkizunak betetzeko, edo laneko arriskuen prebentzioko goi-mailako teknikari jarduteko gaikuntza-titulua edo prestakuntza-ziurtagiria, hiru espezialitateetan: segurtasuna, higiena eta ergonomia eta psikosoziologia.  
Ziurtagiriaren kopia arrunta erantsita egiaztatuko da.

## **FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO GIZA BALIABIDEETAKO ETA PRESTAKUNTZAKO ESKALA**

Ez dago betekizun espezifikorik.

## **FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO OSASUN PUBLIKOKO ETA EPIDEMIOLOGIAKO ESKALA**

- B gidabaimena.  
Administrazio honek jasoko du.
- Medikuntzako lanbide arautuan jarduteko gaikuntza-titulua.  
Administrazio honek jasoko du.



## **FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO LABORATEGIKO ESKALA**

- Ikasketa-eremu hauetako gradu- edo lizentzia-tituluak: kimika.  
Administrazio honek jasoko du.
- Analisi klinikoetako espezialistaren titulua.  
Ziurtagiriaren kopia arrunta erantsita egiaztatuko da.
- Biokimika klinikoko espezialistaren titulua.  
Ziurtagiriaren kopia arrunta erantsita egiaztatuko da.

## **KIDEGO TEKNIKOKO ARRETA SOZIOLABORALEKO ESKALA**

Ez dago betekizun espezifikorik.

## **KIDEGO TEKNIKOKO AZPIEGITURETAKO ESKALA**

- B gidabaimena.  
Administrazio honek jasoko du.

## **KIDEGO TEKNIKOKO LABORATEGIKO ESKALA**

Ez dago betekizun espezifikorik.

## **KIDEGO TEKNIKOKO INGURUMENENKO ESKALA**

- B gidabaimena.  
Administrazio honek jasoko du.

## **KIDEGO TEKNIKOKO LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOKO ESKALA**

- 600 orduko prestakuntza laneko arriskuen prebentzioko goi-mailako eginkizunak betetzeko, edo laneko arriskuen prebentzioko goi-mailako teknikari jarduteko gaikuntza-titulua edo prestakuntza-ziurtagiria, hiru espezialitateetan: segurtasuna, higiena eta ergonomia eta psikosoziologia.  
Ziurtagiriaren kopia arrunta erantsita egiaztatuko da.



## **KIDEGO TEKNIKOKO NEKAZARITZA- ETA ABELTZAIN-TZA-SEKTOREKO ESKALA**

- B gidabaimena.  
Administrazio honek jasoko du.
- Nekazaritza-ingeniaritza Teknikoko lanbide arautuan jarduteko gaikuntza-titulua.  
Administrazio honek jasoko du.
- Albaitaritzako lanbide arautuan jarduteko gaikuntza-titulua.  
Administrazio honek jasoko du.

## **KIDEGO TEKNIKOKO INDUSTRIAKO ESKALA**

- Industria-ingeniaritza Teknikoko lanbide arautuan jarduteko gaikuntza-titulua.  
Administrazio honek jasoko du.

## **LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOKO KUDEAKETA-INFORMATIKAKO ESKALA**

- Ziurtagiri negatiboa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 57.1 artikulua araberako.  
Administrazio honek jasoko du.

## **LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOKO LABORATEGIKO ETA OSASUN- ETA INGURUMEN- IKUSKARITZAKO ESKALA**

- B gidabaimena.  
Administrazio honek jasoko du.

## **LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOKO ARRANTZAKO ESKALA**

- B gidabaimena.  
Administrazio honek jasoko du.



## LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOKO HAZIEN ESKALA

- B gidabaimena.  
Administrazio honek jasoko du.